

Euskal Herria 2379. Matrikuletan EH eta mapetan Euskal Herria ageri dira.

Euskal Herria den demokrazia parte hartzailean, ideal berdinak dituzten agente batzuk bildu dira atzerrian bakea eta askatasuna sustatu asmoz. Nahiz-eta 19. mundu gerlaren ondorengo giro beroan egon, ekintza-talde honek borroka baketsuaren hautua berresten du ekintza ororen ondorengo adierazpenetan. Euskal agente hauek oharkabean pasatzen dira, ez dute beso zabalik bistan; buruarekin jokatzen dute.

Agente hauetako hiru misio berezi baterako prestatu dituzte, lot gaitzen lehenik agente sekretu hauen deskribapenari. Taldeburua, Uharte-Garaziko Antton izanen da, euskaldun gehienek bezala kristoren sudur luzea du. Gure Antton, txapela buruan eta bizar txuri luzea airean ibili ohi da munduan.

Beste biak, Lesakako neba-arrebak dira, Oier eta Irati. Bata ilegorria, bertzea ilehoria.

Neba-arreba guztiek bezala, haien gatazkatxoak izaten dituzte, baina, misioetan, horretarako behar gorria dutenean, elkar laguntzeko prestutasuna erakusten dute.

Haien misioa Betiko herrialdean iraganen da. Han, agintari maltzur zikinek aurrerapenaren eta jendearen auzolanaren aurka egin dute. Horretarako, ordulari guztiak ordu berean geldituarazi ondoren, gobernuak «Ezer ez da aldatuko» lema beretu du.

«Berria» egunkaria 2379/02/06

«Orriotan sarri izan dugu aipagai Betiko herrialdearen egoera lazgarria, denok dakigu han denbora gelditu egin dela. Baina, azken orduko berri bat iritsi zaigu handik: argazkian ageri den gisan, gure euskal agente sekretuek enegarren ekintza egin dute herrialde horretan. Ordulari geldi guztiak lapurtu eta Euskal Herrira eraman dituzte konpondu asmoz.»

Ez dakigu agenteak Betikora ordulari konponduekin itzuli diren edo ez. Horrez gain, baliteke hango jendearen bizimodua anarkia hutsa izatea. Baina, badakigu Betikotarrek haien patuari aurre egin diotela; alegia ez direla marrazkietako pertsonaiak bailiran eternitate guztirako mugitu gabe geldituko.